



- **SEPArako MIGRAZIOA JARRAITZEKO BATZORDEA**
- **SEPA ZUZENETIKO ZORDUNKETEN FITXA, B2B bertsioa**

Ezaugarri nagusiak.

- Eragiketak **eurotan**.
- Hartzekodunak eta zordunak **enpresa** edo **autonomo** izan behar dute (ezin dira kontsumitzaileak izan).
- **Aukerako eskema**, erakunde guztiek ez dute modalitate hori erabiltzen eragiketak egiteko.
- **Irisgarritasuna**: SEPA eremuaren barruan B2B eskemari atxikitako erakundeetako edozein kontu.
- Hartzekodunaren eta zordunaren arteko mandatu berria **formalizatuko da aldez aurretik**; bertan adierazi beharko da onartzen dutela **B2B modalitateko eragiketa**.
- **Mandatu**: zordunketa-kontuko zordun titularrak helbideratze-agindua edo mandatu sinatu beharko du.
- **Kargua egin aurreko baimena**: zordunketa kontuan egin aurretik, erakundeek zordunaren baimena eskatuko dute.
- **Mandatu-zaintza**: hartzekodunak mandatu zaindu beharko du, bai eta horren balizko aldaketak eta ezeztapena ere, eskatu ahal zaion denboran.
- Hartzekodunak **aldez aurretik jakinaraziko dio zordunari**, arlo horretako unean uneko araudiak ezartzen duenaren arabera.
- **Hartzekodunaren identifikagailu bakarra** eta **mandatuaren erreferentzia** nahitaezkoak dira; izan ere, hartzekoduna eta horren babespean egiten diren zordunketak identifikatuko dituzte. Kobrantza errepikarieran ezingo dira aldatu.
- **IBAN kodea** izango da zordunaren kontuko identifikagailua.
- **BIC**aren bidez identifikatuko da zordunaren finantza-erakundea.
- **Formatu zehatza** behar du: **ISO 20022 XML** formatua aginduak erakundeari fitxategietan igortzeko.
- **Zordunketa-sekuentzia**: aurkeztuko den zordunketa mota adierazi beharra dago (FIRST – lehenengoa, RCUR – errepikaria edo lehenengoa, OOFF – bakarra edo FNAL – azkena).
- Oro har, **3 egun balioduneko** aurrerapenarekin **aurkeztu** beharko dira.
- **Ordainketaren helburua. Itzultzeko epea**: zordunak kargua egin ondoren bere finantza-erakundeak dirua itzultzeko eskubideari uko egingo dio. Beste arrazoi batzuk direla eta, eragiketa ez onartu edo itzuli ahal izango da, bankuarteko bi egun balioduneko epemugan.
- **Ordainketari buruzko informazio gehiago**: 140 karaktere, gehienez ere.